

GALTZERDIEN LAPURRA

Ez dakizue zer den nirea bezalako anaia egunero jasan beharra. Ez dut ezagutzen munduan bera baino imajinazio gehiago duen inor. Goizero istorio berri batekin etortzen zaigu. Batzuetan ohe gainean txori bat azaldu zaigula esaten digu, besteetan bere ametsak kontatzen dizkigu... eta egunero nazkatzen gaitu bere istorioekin.

Goiz batez, ama eta biok gosaltzen geundela, guztiz larrituta etorri zen. Eta beti bezala bere istorioa kontatu zigun. Esan zigun gauean pertsona bat sartu zela bere logelan, eta zerbait lapurtu zuela. Inork ez zekien zer lapurtu zuen, orduan ama eta biok Manexen(nire anaiaren) logelara joan ginen. Han dena beti bezala zegoen, baina Manexen galtzerdiak eta Terentzio (gure dortoka) falta ziren. Nire anaiaren istorioak guztiz zentzugabeak eta ezinezkoak izaten ziren normalean, baina azkeneko hau oso harrigarria eta interesgarria zen. Manexek eta biok aste osoa pasa genuen buruari bueltak ematen, gauetan lo ez egiten saiatzen.... Baina alperrik. Biok lorik sakonenean amaitzen genuen.

Baina behingoz harrapatu genuen galtzerdien lapurra. Bueno, edo guk hori uste genuen, amari galdetu genion arte. Eta hau izan zen amaren erantzuna gure ustezko hiltzailea nor zen esan genionean:

-Ai ene semeok... nola izango da izeba Tomaxa lapurra, astean behin bakarrik etortzen bada bisitan!

Guk gure hipotesiekin jarraitu genuen, baina amak denak zapuzten zizkigun. Ezinezkoa dela galtzerdiak oinez joatea, ez zirela aitona Ambrosioren puzkerrekin desintegratu, ez zituela berak jan galtzerdia eta dortoka... eta horrela jarraitu genuen. Guk hipotesi guztiz zentzudunak eta baliagarriak esan, eta amak bere arrazoi ziztrinekin zapuzten zizkigun.

Baina azkenean, Manexen gelan kamara jartzea erabaki genuen. Eta horrela jakin genuen nor zen galtzerdien lapurra:

8:00-etan esnatu ginen eta bideoa ikusten hasi ginen. Eta jakin genuen ez zela lapurra sartu eta ez zituela galtzerdiak eta dortoka berarekin eraman. Dortokak, bere kaiolatik jauzi egin zuen, eta galtzerdiak hartuz joan zen. Hori bai ez genuela espero!

Galtzerdien lapurra ezagutu eta gero nire anaiak (nola ez) bere istorioekin jarraitu zuen. Baina nik, dortokaren kasua aztertu nuen. Eta jakin nuen dortokak hotza zuelako hartzen zituela galtzerdiak, eta bertan egiten zuela lo.

Eta ziur nago badakizuela zer tokatu zitzaidan egitea gauetan soinua ateratzeagatik:

Terentzioren goizeroko gazta usaia garbitzea. Eta ez zen erraza izaten, Terentziok negu osoa pasa bai zuen nire anaiaren galtzerdia usaindunetan lo egiten. Eta sinesta iezadazue, nire anaiaren

galtzerdiek aitona Ambrosioren puzkerrek baino okerrago usaintzen
dute.

ODRI